



# 2 GOSERIK EZ



## HELBURUA:


Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

**2. GHJk bilatzen dituen helmugak hauek dira: guztiontzat elikagai nahikoak, osasuntsuak eta seguruak daudela bermatzea, herritaren elikadura hobetzea eta elikagaiak eskala txikian eta tokiko ekoizpena sustatzea. Baita nekazaritza eta abeltzaintza produktibitatea hobetzea, jarduera horiek jasangarriagoak izan daitezen eta ekimen ekologikoetarantz bultzatuz**

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Landa eremuen garapena
- Ekoizpen ekologikoa Zarautzen.
- Bertako produktuen kontsumoaren sustapena.
- Elikadura osasuntsua, elikagarria eta nahikoa izan daitezen burutzen diren ekimenak

Garapen Jasangarrirako **2. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJHeKin ditu lankidetzat eremu gehien:



## ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

### Landa eremuen garapena

Udalak eskumen gutxi eta mugatuak ditu lehen sektorean. Arlo honetan, Eusko Jaurlaritzak zehazten ditu araudiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ustategien errola kudeatu eta dirulaguntzak ematen ditu.

Urola Kostan, URKOME (Urola Kostako Landa Garapeneko Elkarte) da landa eremuen garapenaren alde lan egiten duen elkarte, eskualdeko 11 udal eta eskualdeko nekazaritza-elkarteek osatutako irabazi asmorik gabeko erakundea izanik. Urkomek 4 arlo estrategiko lantzen ditu:

- **Nekazaritza jardueraren sustapena**  
Nekazaritza jarduera mantendu, berrikuntza eta elkarlana sustatuz, bertako produktuen komertzializazioa hobetuz eta lurraren eskuragarritasuna bermatuz.
- **Landa eremuko jarduera ekonomikoen sustapena**  
Eskualde dinamikoa. Aktibitate ekonomikoari begira landa eremuan jarduera ekonomiko sustatu, aholkularitza eta formakuntza eskainiz, eskualdeko eragileen arteko elkarlanean oinarrituz.

- **Landa eremuko balioaniztasuna agerian jartzea**


Landa eremuarekiko sentsibilizazioa indartu eta landa eremuko dibertsitatea mantendu (paisaia, kultura, ohiturak, baliabide naturalak...) eta balorean jarri.

- **Landa eremuko azpiegitura eta zerbitzuak bermatzea**

Bizi kalitatea. Landa eremu bizia izan dadin beharrezko azpiegitura eta zerbitzuak bermatu.

Urkomek 2016 urtean Lehen Sektorearen azterketa egin zuen, jarraian azterketa honen emaitza nagusiak zehazten direlarik:

Lurzoruaren erabilerari dagokionez, Zarautzen **laborantzarako erabilgarri dagoen luraren azalera txikia da, 737 hektareakoa** soilik, honek **Urola kostako laborantza azalera osoaren %3,39** suposatzen duelarik, eskualdeko 11 herriak kontutan hartuta.



Zarautzen lur eremu handiena **bazka-landarearena** da eta ondoren **baso eremua**. Eremu txikiena berriz loreena da.



41 lur jabeeri egindako inkesta egin zen. Horietako %32ak lurrak soberan, hau da, beste bati uzteko moduan baditu ere, erdia baino gutxiago egongo litzateke prest beraien lurrak uzteko.

*Iturria: Urkome. Sektorearen Azterketa. Zarautz (2016)*


Honekin lotuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak beste entitate batzuekin elkarlanean **Nekazaritza Lurren Funtza** proiektua jarri du martxan, honen helburua nekazaritzaren sektorearekin lotutako proiektu profesionalak aurrera eramateko behar dituzten pertsona guztiei finkak eskuragarri jartzea delarik.

Lehen sektorearen arazo nagusietako bat errelebo falta da, horrela, 41 baserriei egindako inkestan jasotako erantzunak oinarri hartuz, horietako 13k erreleborik ez dutela adierazten dutelarik. Hala ere, lehen sektoreko ustategien jarraipenaren inguruan, bi errealitatea desberdintzen dira: adin jakin batetik aurrerako (60 urtetik gora), baserriarrek nahiago dutela jarduera bertan behera uztea, beraien ustategian kanpoko inor lanean sartzeari baino; ustategien jabeak gazteak diren kasuetan, ordea, hauei ez lieke axolako kanpoko norbaitek jarraitzea aktibitatearekin, familian bertan inork mantendu nahi ez duen kasuetan.

Balio Erantsi Gordinaren 2019 urteko datuak sektoreka ikusita, Zarautzen, Zerbitzuen sektorea da garrantzitsuen eta **nekazaritzaren sektorea, ordea, pisu gutxien duen sektorea** da. Azken urte hauten, sektore honen balioa nahiko egonkor mantendu delarik.



*Iturria: Udalmap. Udalerrietako iraunkortasun adierazleak.*




Ildo berean, 2020 urtean, nekazaritza sektorean izan da okupazio tasarik baxuena duena bai Zarautzen, baita Urola Kostan, Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Erkidegoan ere eta altuena, berriz, zerbitzuen sektorea.

*Iturria: Udalmap. Udalerrietako iraunkortasun adierazleak*

Aipatzekoa da ekoizle gehienek autonomo bezala jarduten dute eta Nekazal Gizarte Aseguruaren barruan garatzen dute beraien jardura, gehienek bakarrik (langilerik gabe) edo langile bakarria dutelarik. Honekin lotuta esanguratsua da Jardura duten 33 baserrietatik, 11k (%33) kanpoan lan egin behar dutela beraien diru sarrera osatzeko, baserriko diru sarrerak ez baitira nahikoa bizitzeko.

Urkomek egindako azterketaren arabera, 2016 urtean **Zarautzen 133 baserri zeuden** (0,2 NLU<sup>1</sup>-tik gorako baserriak).



41 baserrietako informazioaren arabera, Zarautzko **jardura nagusia abeltzaintza da 19 ekoizlerekin** eta 8 baserri dira jarduerarik ez daukaten baserriak (ez dute aktibitate honi loturako diru sarrerarik).

*Iturria: Urkome. Sektorearen Azterketa. Zarautz (2016).*

<sup>1</sup> Nekazaritzan Lan Unitatea

## GOSERIK EZ

|              |        |                  |        |
|--------------|--------|------------------|--------|
| Baratza      | %15,79 | Landareak/Loreak | %5,26  |
| Frutarbolak  | %15,79 | Nekazal turismoa | %7,02  |
| Abeltzaintza | %33,33 | Jarduera eza     | %14,03 |
| Ostalaritza  | %8,77  |                  |        |

Abeltzaintza lantzen dutenetatik gehienek haragi behiak dituzte, frutarbolen kasuan, mahasti eta sagar ekoizpena direlarik nagusiak Bestalde, baserri gehienek jarduera bakarra edo bi jarduera dituzte.

Urkomek landa eremuko jarduera ekonomikoa sustatzeko hainbat ekintza burutzen ditu, besteak beste:

- Landa eremuko azpiegitura eta zerbitzuak hobetzeko ekintzak sustatzen ditu.
- Ekoizleen online gida mantentzen du.
- Ekintzaileei zuzendutako laguntzak: Proiektuen bideragarritasuna, finantzazioa eta enpresa plana egiteko laguntza ematen da eta baita jarraipena egin ere. .
- Urkome sariak antolatzen ditu, eskualdeko ekimen berritzaileak eta ekintzailetasuna aitortzeko eta saritzeko helburua dutelarik.
- Baserrietako bisita gidatuak bultzatzen ditu eta horiek antolatzeko laguntza ematen du.
- Ikastetxe eta formakuntza zentroekin harremanak bultzatzen ditu: nekazal kultura ezagutarazteko eta bertako produktuen sustapena egiteko.

### Ekoizpen ekologikoa Zarautzen

Nabarmentzekoa da ekoizleak azken urtetan ingurumenaren zaintza eta kalitatearen aldeko apustua egiten ari direla eta horietako batzuk ingurumen edo kalitate zigilu edo ziurtagiriak dituztela. Produktu ekologikoen ekoizpena nahiko garrantzitsua da Zarautzen. 2021ean **9 ekoizle** daude **Ekolurra zigiluarekin**, **beste 2 ziurtapen-prozesuan** daude eta **batek produktu ekologikoen salmenta-ziurtagiria** du. Horietako gehienak baratzagintza eta fruitarbolak lantzen dituzte, aipatzekoak direlarik sagar eta mahats ekoizleak, baita txakoligintza ere.

Azken urtetan gora egin du ekoizpen-ekologikoa egiten duten nekazaritza ustiapenen kopuruak, baita erabilitako azalerak ere. Honela, 2016 urtean 5,80 ha izatetik 2019 urtean 8,90 ha izatera pasatu da.

Nabarmentzekoa da udalerrian ez dagoela abeltzaintza ekologikoa egiten duen ustiategirik.

Iturria: Ekolurra

### Bertako produktuen kontsumoaren sustapena

Udalerrian kokatuta dauden ekoizleek beraien **produktuak merkaturatzeko** bide eta sare desberdinak erabiltzen dituzte:

- Merkatu Plaza da bertako ekoizleek beraien produktu freskoak eta garaiko produktuak merkaturatzeko espazio nagusia: 2016an 27 ekoizleek zuten salmenta postua
- Barazki eta fruta ekoizleek beraien produktuak elikagai-dendetan, jatetxeetan eta tabernetan edo supermerkatuetan salmenta zuzena egiten dute. Oraindik gutxi dira internet bidezko salmenta egiten duten ekoizleak, txakolin ekoizleak direlarik internet-salmentan gehien egiten dutenak.
- Behiak dituzten ekoizleen kasuen, haragitarako behien kasuan, gehienek harategiei zuzeneko salmenta egiten diete eta esne-behien kasuan (5), gehienek Kaikuri saltzen diote esnea eta bakar batek jatetxe/taberna/makinen bidezko salmenta egiten du

Merkatu Plaza komertzializazio bide nagusia bada ere, 2016an egindako inkesta batean bertan postua duten ekoizle eta saltzaileek merkatuaren inguruko bi arazo nagusi identifikatu zituzten:

- batetik, espazioaren egoera kaskarra,
- eta bestetik, salmenta eskasa, jende gutxi ibiltzen baita merkatuan.

Faktore desberdinek dute eragina egoera honetan:

- Merkatuko postuetako nahiz erosleen errelebo falta.
- Ordu-tegi txarra, lana egiten duten pertsona askok ezin baitute bertan erosi ordutegia dela eta.
- Aparkaleku faltagatik eta hori ordaindu beharra dagoelako.

Identifikatutako gabeziak konpondu eta ekoizle eta postuetako kideen erosotasuna hobetze aldera eta bide batez, bezeroei eremu erakargarriago eta funtzionalago bat eskaintzeko helburuarekin, 2022ko martxoan Merkatu Plaza berritzeko lanak burutu dira. Besteak beste, ekoizleen postuak berri-itu dira, lurra aldatu da, argiteria hobetu da, fatxada eta barruko paretak berri-itu dira, birziklatzeko eremu bat sortu da, takila gunea txertatu da, mantenu lanak burutu dira, eta aireztapen sistema hobetu.

Lehen sektorea eta ekoizleak ezagutzera emateko helburuarekin, "Freskua" aldizkaria argitaratze da baita ere eta bestelako ekimenak burutzeko elkarlanean dihardute Udala eta ekoizleak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzarekin, Landa Garapen Elkarteekin eta Eliko Fundazioarekin elkarlanean lurraldeko herrietako azokak aztertu, indartu eta hauen etorkizuna bermatzeko helburuarekin Gipuzkoako Azokan Sarea egitasmoa jarri zuen martxan 2021eko urtarilean. Zarauzko Merkatu Plazak sare honetan parte hartzen duelarik.

Merkatu Plazaz gain, udalerrian bertako produktuak eta kontsumo jasagarria sustatzeko zenbait azoka antolatzen dira baita ere:

- Sagardo Eguna- Zurekin ostalaritza elkartearekin elkarlanean
- Nekazaritza biologikoa- Biolur, Zarauzko udala eta Urkomeren artean
- Mahats bilketaren jaia: Zarauzko Udala eta CRDO Getariako Txakolinaren arteko elkarlanean
- Micológica: Zarauzko Udala eta Arkamurka Natur Taldeak antolatua
- Zarauzko ekonomia alternatibo eta solidarioaren azoka.

Azokez gain, bertako produktuak sustatzeko bestelako ekintza batzuk ere garatzen ari dira udalerrian:

- **Urolapiko proiektua**, eskualdeko eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzeta eta elkarlan proiektua, landa-eremuaren potentziala eta eskualdeko nekazaritza produktuak balioan jartzen duen, ekoizle eta transformatzaileentzako merkaturatzeko zirkuitu laburrak topatu eta banaketa eredu berriak irekiz.
- **Urola gustagarri / Urola Platerean proiektua**: Iraurgi Berritzen-ekin elkarlanean landutako proiektu, ekoizleak, jatetxeak eta tabernariak elkar ezagutu eta bertako produktuak balorean jartzea helburu duena.

### Elikadura osasuntsua, elikagarria eta nahikoa

Udalak **elikadura osasungarria eta guztientzako elikagaiak bermatzeko** ekintzak gauzatzen ditu baita ere.

Zarauzko datuak ez badaude ere, Eusko Jaurlaritzak 2018an egin zuen Osasunaren inguruko inkestan elikadura-ohituren eta obesitate prebalentziaren inguruko ondoriok nagusiak ondorengoak dira:

Emakumeen eta gizonen elikadura-ohiturak desberdinak direla aipatu daiteke, honek osasunean eragina izan dezakeelarik. Osasunaren Mundu Elkarteak (OME/OMS) egunean 5 berdura eta barazki ale kontsumitzeko gomendioa **elikadura-ohitura onaren** adierazle gisa erabili ohi da.

Honen harira, EAEko 15 urte edo gehiagoko biztanleriaren %15,4ak betetzen du OME gomendioa (gizonen %12,5ak eta emakumezkoen %18,1ak). Portzentaje hau baxua bada ere, Espainia estatuko (%12,4) eta Europako (%14,3) batz bestekotik gora dago.

Iturria: Osasunaren inkesta, Eusko Jaurlaritzza

Elikadura-ohiturek eta egoera sozioekonomikoak lotura zuzena dute **obesitatearen prebalentziarekin**, honela aipatzekoa da:

- Baliabide sozioekonomikoa zenbat eta okerragoa, obesitate tasa orduan eta handiago izaten da. Era berean, ikasketa maila txikitzen den heinean obesitateak gora egiten du.
- Obesitatea duten pertsonen proportzioak gora egiten du adinean gora egin ahala.
- 2007 urtetik obesitatearen prebalentzia kasuan egonkortu egin da gizonen kasuan (%14, 2018an) eta emakumeen kasuan zertxobait behera egin du (%11, 2018an).


Zentzu honetan, Udaleko Hezkuntza departamendutik, herriko ikastetxeekin elkarlanean, urtero ikastetxeetan burutzen diren Hezkuntza Programen baitan, Elikadura Osasuntsuari buruzko hitzaldi batzuek txertatu dira. Hitzaldi hauek Gurutze Gorriak eskaintzen ditu Ikastetxeetan, 12 urtetik hasi eta 16 urte bitarteko adin tartetean. Bertan, haur eta nerabeei elikagaien piramidea azaltzen zaie eta ariketa praktikoak egiten dituzte, euren elikaduraren inguruko hausnarketa egin eta hau hobetzeko zer egin dezaketen aztertuz.

Elikadura subirautzaren arloan, Udalak hainbat konpromisu hartu ditu:

- Bizilur elkartearekin lan egitea, elikadura burujabetza sustatzeko.
- Gipuzkoan gain honen inguruan lanean dabiltzan elkarteek proposatzen dituzten hausnarketa eta ekimenetan parte hartzen du (adibidez EMAUS elkartearekin).

Herritar guztiei elikagai osasuntsuak eta guztientzako elikagaiak bermatzeko helburuarekin, udalak, udalerriko zenbait talde eta elkarteekin lankidetzan sustatzen du baita ere, Elikagaien Bankuarekin, Caritas-ekin edo Gurutze Gorria eta DYArekin esaterako:

- **Europako Elikagaien Programa:** Europako fondoetatik bideratutako pertsona ahulenei zuzendutako elikagaien banaketa, Elikagaien Bankua eta Nagusilaneekin elkarlanean. Urtean 4 banaketa egiten dira.



Bestalde, Caritas elkarteak, elikagaien banaketarako beste programa ba du bere ardurapean, elikagaien bankuaren bitartez. Honetan asteroko banaketa egiten dute. Udalak diruz eta lokal bat jarritz laguntzen dio programa honi.

Horietaz gain, Udalak elikagai osasuntsuak eta elikagaiak eskuratzeko errazteko bestelako ekimenak ere gauzatzen ditu:

- Munantxo 179 udal baratze daude, berauek eskuratzeko lehentasuna dutelarik langabezia dauden pertsonak eta pentsiodun eta jubilatuek.
- Zarauzko Baratze solidarioa ekimena, zeina Caritas-ekin elkarlanean gauzatzen den. Bolondres talde bat arduratzen da baratza kudeatzeaz eta bertan ekoiztutako barazkiak Caritas-en bidez banatzen da behar gehien duten familia eta pertsonen artean, bertako produktuak 120 familia ingurutara iristen direlarik.

Udal baratzeak erabiltzeko baimena arautzen duen Erreglamendua 2010 urtekoa bada ere, egun berau arautzen duen ordenantza berrikusten ari da eta bertan baratzagintza ekologikoaren erabilera sustatzea aurreikusten da, interesa duten pertsonak formatuz eta horien erabilera sustatuko duten baliabide materialak jarritz.

### EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Merkatu Plaza**, udalerriko ekoizleek beraien produktuak merkaturatzeko espazio garrantzitsua da. Espazioaz gain, "**Freskua**" aldizkaria argitaratzen da baita ere 2020tik, zeinetan Merkatu plazaren promozioa eta bertan dauden saltzaileen inguruko informazioa ezagutzera ematen den, beste batzuen artean.
- **Udal baratzeak eta Baratze solidarioa**, produktu osasuntsuak ekoitzi eta eskura izateko aukera ematen zaielarik udalerriko biztanleei, langabezia egoeran edo pentsiondunek hauek eskuratzeko lehentasuna dutelarik. Bestalde, Baratze solidarioan ekoizten diren barazkiak behar gehien duten pertsona eta familien artean banatzen dira.
- **Elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldiak**, Hezkuntza programaren baitan. 12-16 urte bitarteko ikasleei zuzendutako hitzaldiak dira, ariketa praktikoaren bidez elikaduraren inguruko hausnarketa egin eta berau hobetzeko praktikak edo ohiturak landuz.





### ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Elikagaiak alferrik galtzearen kezka jaso da.
- Zenbait herritar kezkatuta daude Salberdineko baratzeak desagertu direlako eta beste leku batzuetara eraman daitezkeelako.

### ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- **Landa lurren inguruko arreta zuzena eskaini, horretarako beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak sustatu.**
- **Landa lurretako azpiegiturak eta zerbitzuak hobetu**, landa bideak, internet, argindar hornidura, garraio publikoa, saneamendua,...
- **Nekazaritza ekologikoa sustatu.**
- **Elikagaien burujabetzaren arloan**, Udalak izango duen ikuspegia eta posizionamendua erabaki, lehen sektorearen sustapena helburu izanik.
- **Udal merkatua sustatu eta zuzeneko jarraipena egin**:, ordenantza berrituz eta jarraipena eginez, baita , aparkatzeko aukerak aztertuz ere.
- **Bertako produktuen kontsumoaren sustapena**, Urkome eta beste erakundeekin elkarlanean, zenbait proiektu aurrera eramanez (Urolapiko, Urola gustarri,...).
- **Sektorean belaunaldien arteko erreleboari lagundu.**
- **Lehen sektoreak eta landa lurak zuzeneko garrantzi ekonomiko txikia dute, baina pisu handia, elikadura burujabetzan, herriaren euskarri fisikoa mantentzen, herriaren kultura-izaeraren ardatz nagusia izaten.....**